



2023ko maiatzaren 26an GOBERNANTZA DEPARTAMENTUko honako foru agindu hau eman da:

Oñatiko udal armarría eta banderaren onespén.

Jakin dezazun eta dagozkion bidezko ondorioak izan ditzan igortzen dizut.

Donostia, departamentuko idazkari teknikoa

Alfonso Acarreta Rodríguez

FORU AGINDUA

2022ko urriaren 19an, udal armarría eta bandera aldatzeko Oñatiko Udalean burututako espedientea jaso zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, behin betiko ebazpena eman zezan, Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauaren 37. artikuluari jarraikiz.

Hain zuzen, udal armarríak eta banderak onartzeko edota jada onartutakoak aldatzeko prozedura eta betekizunak ezartzen ditu 37. artikulua. Honako hauek dira: udal Osoko Bilkuraren aldeko erabakia, espedientean behar bezala egiaztatutako arrazoi historiko eta heraldikoetan oinarrituta hartutakoa; espedientea Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, behin betiko ebazteko; ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatzea.

Horri dagokionez, Oñatiko armarría eta bandera aldatzeko espedientearen xedea da heraldikaren eta bexilologiaren arau eta printzipioetara egokitzea. Halaber, aukera aprobeztatzen da armarrítik koroa eta banderatik San Andresen gurutzea kentzeko.

Aldundiari aurkeztutako espedientean jasotzen denez, izapide hauek egin dira, besteak beste: Osoko Bilkuraren hasierako onespena 2022ko uztailaren 21eko bileran (behin betikotzat jo beharrekoa, informazio publikoaren izapidean erreklamaziorik edo alegaziorik ez zelako aurkeztu); eta jendaurrean jartzea 20 egun baliouduneko epean, dagozkion iragarkiak argitaratuta 2022ko abuztuaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (150. zk.) eta udal iragarkien taulan (2022ko uztailaren 29an).

Horrekin batera, Eusko Ikaskuntzaren aldeko iritzia jasotzen duten hiru txosten eskuratu zituen udalak, proposamenaren oinarri gisa erabilitako arrazoi historikoak, heraldikoak eta bexilologikoak behar bezala egiaztatze aldera.

Horiek horrela, Gobernantza Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urriaren 20ko 17/2020 Foru Dekretuak 1.1.g) artikuluan, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

Lehenengo.- Oñati udalerriaren armarrítzat onestea ondoren deskribatzen den hau:

“Armarri biribila edo espainiarra. Gorria, oreina (urrezkoa), ibilian, burua jiratua, adarduna, mingain gorria; haren gainean, arrano beltza, ertz zuriak, hegoak zabalik; oinetan, urrezko galburuak; zelai berdean hesolak (urrezkoa). Goiko zerrenda zuria (zilarrezkoa) bitan banatua: lehenengoan, arrano beltza hegaldia hartzeko jarreran; bigarrenean, oreina ibilian, ertz beltzak, adarduna, mingain gorria.”

Foru agindu honen I. eranskinean jaso da armarríaren irudikapen grafikoa.

Bigarren.- Oñati udalerriaren banderatzat onestea ondoren deskribatzen den hau:

“Bandera angeluzuzena, zuria, 2:3 proportzioak dituena. Erdian, udal armarría, bere metal eta koloreekin.”

Foru agindu honen II. eranskinean jaso da banderaren irudikapen grafikoa.

Hirugarren.- Gipuzkoako udal barrutiak erregulatzeko martxoaren 17ko 2/2003 Foru Arauak 37. artikuluan ezartzen duenari jarraikiz, ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta Toki Erakundearen Foru Erregistroan inskribatzea.



Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita BI HILABETEKO EPEAN.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita HILABETEKO EPEAN. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu berraztertzekoa berriaz ebatzi edo ezesten den arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Digitalki sinatua

Eider Mendoza Larrañaga

Foru diputatua

Gobernantza Departamentua




I. ERANSKINA





II. ERANSKINA



SIERF5600bd4-1da8-499b-98bb-7fd460866c30



Egiaztapen Kode Segurua: **FAEB2bb648b2-94aa-4aee-93c1-0278a0ca5c98**

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Aprobación del escudo y de la bandera municipales de Oñati.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIERf5600bd4-1da8-499b-98bb-7fd460866c30**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>**